



# MARIELLA CARRINO BEKA - in memoriam

## DEIALDIAREN OINARRIAK

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak (LSNE) eta Carrino familiak “Ikerketa soziojuridikoa sustatzeko Mariella Carrino urteko programa” sortu dute.

Mariella Carrinoren eta hark egin zuen eta gerora argitaratu zen doktorego-tesiaren oroimenez sortutako programa horren bidez, familiak **gizarte-gatazkari, etxebizitza-politikei eta etxebizitzarako eskubideari** buruzko ikerketa zientifikoak sustatu nahi ditu, arlo horietan interesa duten ikertzaile gazteen karrera errazte aldera. Horretarako, urteko ekarpen ekonomiko bat egingo du.

“Mariella Carrino Beka – in memoriam” eskatzeko baldintzak, batzorde Zientifikoak aurretik balioztatuaK, urtero argitaratuko dira Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen (LSNE) webgunean ([www.iisj.es](http://www.iisj.es)), eta konpromisoa hartuko da bekaren sorrera eragin zuen espiritua zintzoki errespetatzeko.

### 1. Ikerketa-proiektuak:

Arlo soziojuridikoen inguruko ikerketa sustatzeko proiektuak dira, eta etxebizitza-politika publikoen eta etxebizitzarako eskubidearen inguruko gizarte-gatazkei emango zaie lehentasuna, Mariella Carrinok aztertu zituen gaiei jarraikiz.

Subsidiarioki, beka LSNEen ematen den Lege Soziologiako Nazioarteko Masterreko ikasle baten matrikularen kostua ordaintzeko ere erabili ahal izango da. Horretarako, esleitutako zenbatekoa itzuliko da.

### 2. Hartzaileak eta ezaugarriak:

2.1. Programa Carrino familiak dohaintzan emandako beka edo laguntza batean datza, eta adierazitako arloen inguruko ikerketa-proiektuetarako emango da (ahal bada, LSNEen ematen den Lege Soziologiako Nazioarteko Masterreko ikasleek edo graduatuek garatutako proiektuetarako).

2.2. Bekaren edo laguntzaren onuradunak LSNEen egin beharko du ikerketa, eta liburutegian eta dokumentazio-zentroan sartzeaz baliatuko da, bai eta Institutuaren jarduera guztietan parte hartzeaz ere, ikerketa-ildoak barne. Garrantzitsua da onuradunak Institutuan jarduera akademikoa izatea, institutuko komunitate zientifikoari mesede egin diezaiokeena.

2.3. Eskaera eta ikerketa-proiektua ingelesez idatzi beharko dira, edota osorik ingelesera itzuli, beste hizkuntza batean idatzi badira. Kasu horretan, eskaerari jatorrizko bertsioa erantsi beharko zaio, edo azken proiektuarekin batera aurkeztu.

2.4. Beka bakarka edo taldean eska daiteke. Bigarren kasuan, pertsona bat ikerketako zuzendaritzaren arduradun izendatuko da. Beka lortu ahal izateko, ezinbestekoa da ikerketa bermatuko duen unibertsitate-titulazioaren bat izatea. Betekizun hori Batzorde Zientifikoak egiaztatuko du alde aurretik.

### 3. Batzorde Zientifikoa:

Batzorde Zientifikoa bost kidek osatuko dute: Carrino familiak proposatutako bi kidek eta LSNEk proposatutako bik. Azken horietatik bat Eusko Jaurlaritzak izendatutako LSNEko Patronatuko kideen artean aukeratuko da, eta



bestea, Zuzenbidearen Soziologiako Ikerketa Batzordeak (RCSL) izendatutako kideen artetik. Lau kideek bosgarren kidea izendatuko dute.

#### 4. **Epeak:**

Bekaren deialdi ofiziala LSNEren webgunean eta baliabideetan argitaratuko da bekaren oinarriak eta LSNEk horretarako prestatutako formularioaren bidez aurkezteko epeak adierazita.

Batzorde Zientifikoa arduratuko da hautagaitzak ebaluatzeaz eta beka uztailaren 31 baino lehen emateaz.

Bekaren onuradunak beka ematen den urteko iraila eta abendua bitartean egin beharko du ikerketa. Horretarako, lan-plan xehatu bat aurkeztu beharko du, Batzorde Zientifikoak onartu beharko duena, eta Erakundearen ikerketa-jardueretan parte hartu beharko du, hala nola ikerketa-ildoetan, mintegietako ekitaldietan eta zabalkundeetan.

Azaroaren 30a baino lehen ikerketa-proiektu bat aurkeztu beharko da. Batzorde Zientifikoak haren kalitatea ebaluatuko du, eta dokumentua onartuko du edo hobetu edo osatu beharreko alderdiak adierazi ahal izango ditu. Alderdi horiek ikerketa-proiektua entregatu eta azken aldiz baliozkotu aurretik zuzenduko dira.

Epeen laburpena:

- Hautagaitzaren aurkezpena: argitalpenean adierazitakoak.
- Beka ematea: uztailaren 31 baino lehen.
- Lan-planaren aurkezpena: iraileko lehen astea.
- Ikerketa-proiektuaren aurkezpena: azaroaren 30a baino lehen. (2.500 hitz).
- Batzorde Zientifikoak baliozkotutako azken ikerketa-proiektua entregatzea eta egiletzaren adierazpen sinatua: abenduaren 31 baino lehen. (15.000 hitz).

#### 5. **Ordainketak:**

Carrino familiak emandako zenbatekoa: **4.000 €**. (Lau mila euro).

Honela ordainduko da beka:

- 1) Guztizko zenbatekoaren % **20** onuraduna aukeratu eta hilabeteko epean.
- 2) % **50** Batzorde Zientifikoak ikerketa-proiektuaren zirriborro aurreratua onartu ondoren.
- 3) Gainerako % **30a** azken proiektua aurkeztu eta Batzorde Zientifikoak onartu ondoren.

LSNEk eskubidea izango du dagozkion zenbatekoak ez ordaintzeko, beharrezkoak diren betekizunetakoren bat bete ezean edo Batzorde Zientifikoak proiektua balidatu ezean, eta behar bezala jakinaraziko die inplikaturako alderdiei.

Uko eginez gero edo proiektuaren baldintzak betetzen ez badira, beka gisa aurrez ordaindutako zenbateko partzialak itzuli egin beharko zaizkio LSNERi. Carrino familiari edo haren ordezkariari behar bezala jakinaraziko zaio, eta itzultitako zenbatekoak zertarako erabiliko diren erabakiko da. Gauza bera gertatuko da beka hutsik geratzen bada.

#### 6. **Jabetza intelektual eta publizitatea:**

Ikerketa-lana Jabetza Intelektualaren Legeak babestuko du. Horren ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titulartasuna ikerketa-lana egin duenarena izango da, beste modu batean ezarri denean izan ezik, betiere indarrean dagoen legerian aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

Bekaren esleipendunek uko egingo diote LSNEk egile-eskubide gisa emandako konpentsazio ekonomiko orori.



Bekaren xede den ikerketa-lanaren inguruko argitalpen, jardunaldi edo publizitate orok **“Ikerketa soziojuridikoa sustatzeko Mariella Carrino urteko programa”** eta **“Mariella Carrino Beka – in memoriam”** aipatu beharko ditu.

Ondorio guztietarako, bekaren xede den ikerketa-lanari dagokionez, ikertzailea LSNEren filiazio instituzionalarekin agertuko da, eta bidezkoa den lekuan ohartaraziko du hori.

LSNEk lehentasuna izango du ikerketa-lana argitaratzeko garaian (bai paperean, bai formatu elektronikoa), eta atal honetan jasotako publizitate-betekizuna beteko du. LSNEk uko egin ahal izango dio eskubide horri egilearen mesedetan, Batzorde Zientifikoak hori erabakitzen badu.

LSNEk deskontuak eskaini ahal izango ditu Institutuan aurrez aurreko egonaldian Antia egoitzan ostatu hartzearen behin-behineko kostuen irisgarritasuna eta eskuragarritasuna errazteko, lankidetzak akademikoa eta IISJren ikerketa-jardueretan parte hartzea sustatzeko.

## 7. **Betekizunak eta aurkeztu beharreko dokumentuak:**

### 7.1. FORMULARIOA:

7.2. Honako dokumentazio hau erantsi beharko zaio formularioari:

- 1. Unibertsitate-titulazioa egiaztatzen duen dokumentua. (Titulu ofiziala).
- 2. Curriculum Vitaea.
- 3. Proiektuaren izenburua, laburpena (gehienez 300 hitz), ikerketaren justifikazioa eta garrantzia eta gako-hitzak barne hartuta.
- 4. Ikerketa-proiektuaren eskema xehatua (2-5 orrialdekoa).
- 5. Erabiliko den bibliografiaren aurreikuspena.
- 6. Erakundearen ikerketa-jardueretan emandako denbora barne hartzen duen lan-plana eta kronograma.
- 7. Hautagaien ikerketa-gaitasuna justifikatzen duen beste edozein dokumentu.

7.3. LSNEk hautagaitza garaiz eta behar bezala jaso duela adieraziko du. Baldintza hori bete ezean, hautagaitza ez da aurkeztuzat joko. Hautagaitza osatu gabe badago, zuzentzeko eskatuko da eta epe berria adieraziko da. Epe hori baldintzak betetzen ez badira, ez aurkeztuzat joko da..

7.4. Adimen artifizialaren erabilera: Bekaren xede den proiektuak adimen artifizialeko tresnen erabilera etiko, arduratsu eta gardenerako politika bete beharko du. Politika hori LSNEk prestatu eta argitaratutako [“Inteligentzia artifiziala erabiltzeko gida”n \(IA\)](#) dago jasota.

Oinarri hauek interpretatzean sortzen den zalantza edo kontsulta oro bekako administrazio-arduradun Marije Mesonerori helaraz dakioko ([m.mesonero@iisj.es](mailto:m.mesonero@iisj.es)).